28 marzo de 2026

# Noticias e informaciones de interés

## LAS PATRONALES CONFEBASK Y CEN RECHAZAN ACUDIR A LAS CONVOCATORIAS DE REUNIÓN DE ELA Y LAB.

Los sindicatos ELA y LAB habían convocado para los días 24 y 25, respectivamente, a las patronales Confebask (Comunidad Autónoma Vasca) y CEN (Comunidad Foral Navarra) a sendas reuniones para tratar de iniciar negociaciones por un salario mínimo propio de 1.500 euros mensuales en cada una de ambas comunidades. A esas reuniones estaban convocados, asimismo, los sindicatos CCOO y UGT.




Haciendo caso omiso de la huelga general exitosa del 17-M, que dio mayor respaldo y legitimidad social a la reivindicación de un salario mínimo propio de 1.500 euros en ambas comunidades de Hego Euskal Herria, las dos patronales rechazaron acudir a esas convocatorias de reunión.

Los sindicatos ELA y LAB consideran esa actitud provocadora y de desprecio hacia los trabajadores y trabajadoras. Actitud que también ha sido criticada, aunque, en otros términos, por CC OO en la CAV. Asimismo, vuelven a criticar a los gobiernos de Gasteiz e Iruñea por ponerse de perfil, en una posición equidistante, al "invitar" a las dos partes a sentarse a negociar, lo cual no deja de ser un brindis al sol, cuando una de las dos partes, la patronal, se niega a sentarse y negociar.

Por otro lado, según ha trascendido públicamente, la patronal CEN y los sindicatos UGT y CCOO en Navarra han iniciado conversaciones de cara a que en los convenios a negociar las categorías salariales mínimas puedan llegar a los 1.500 euros.

Mucho nos tememos que la pelea va a ser larga para conseguir el salario mínimo propio de 1.500 euros, al igual que para lograr que se complementen las pensiones mínimas hasta el salario mínimo interprofesional. Son dos reivindicaciones básicas, que han adquirido una legitimidad social muy amplia en Hego Euskal Herria, y de suma importancia para los sectores más desfavorecidos y en precario, tanto del mundo obrero como del mundo pensionista. Habrá que ir pensando en nuevas iniciativas y movilizaciones para que las patronales y los gobiernos cambien de actitud.

## LAS CONSECUENCIAS DE LA AGRESIÓN MILITAR DE EEUU E ISRAEL CONTRA IRÁN Y LÍBANO LAS PAGAMOS TODOS Y TODAS

Hace justo un mes, el 28 de febrero, EEUU e Israel iniciaron los bombardeos brutales contra Irán. Unos días después Israel, al igual que había hecho en Gaza, bombardeaba Líbano como paso previo para ocupar una buena parte de su territorio. Son ya miles las personas muertas y millones las personas desplazadas, en su mayoría civiles iraníes y libaneses, sin las ayudas básicas para sobrevivir, por esta agresión militar de carácter imperialista y colonial.

Hay riesgos de que esta guerra pueda prolongarse, incluso extenderse a buena parte de los países del Oriente Medio, con sus graves consecuencias humanitarias y económicas que nos interpelan y afectan a todo el mundo, por lo que es una responsabilidad social enfrentarse a quienes la han provocado y continúan dispuestos a mantenerla

hasta conseguir sus objetivos.

Esta guerra está generando una crisis económica a nivel internacional con sus graves consecuencias, como siempre, para las clases trabajadoras y populares. El pasado viernes, día 20, el Consejo de Gobierno del Estado, aprobó precisamente dos Real Decretos Ley, uno con las medidas fiscales y económicas para hacer frente a los efectos provocados por ésta y otro específico en materia de vivienda.  El MPEH en un comunicado hecho público el lunes señalaba:




“Respecto al primer Real Decreto Ley valoramos que algunas medidas mejoran las condiciones de vida de las personas más vulnerables, pero consideramos que son insuficientes y van acompañadas de medidas fiscales que, mucho nos tememos, terminarán engordando los bolsillos de quienes hoy están especulando con los precios de la energía y los alimentos. Las grandes empresas, financieras y energéticas llevan muchos años pagando menos impuestos de los que tienen que pagar y baten año tras año récords de beneficios.

En 2025 la gran banca tuvo unos beneficios de 34.000 millones de euros y las empresas energéticas de 12.405 millones de euros. Entre los dos sectores deberían haber pagado 13.300 millones de euros en el Impuesto de Sociedades, pero solo pagaron 2.882 millones de euros: como Impuesto de Sociedad, pagaron un 6,8% y un 4,8% respectivamente cuando deberían pagar un 30% y un 25% respectivamente. Lo que dejan de contribuir estos dos sectores en Impuesto de Sociedades, duplica los 5.000 millones de euros que supone el escudo social.

Desde el MPEH exigimos que además de medidas coyunturales se tomen decisiones estructurales para repartir equitativamente la riqueza, empezando por el establecimiento de un SMI y pensión mínima suficientes que garanticen a las trabajadoras y trabajadores unas condiciones de vida dignas. En un contexto internacional en el que lo más ricos han impuesto la ley del más fuerte exigimos también eliminar el gasto militar en los presupuestos públicos y acabar con las guerras”.

Poner freno a la agresión militar de EEUU e Israel es no solo urgente, sino también imprescindible. Es preciso para ello impulsar iniciativas sociales amplias y unitarias, exigiendo asimismo que muestras instituciones y gobiernos denuncien y se opongan eficazmente a la misma. Hay que acabar con el enorme sufrimiento humano y vital de los pueblos iraní, libanés, palestino..., así como con la crisis económica abierta a nivel internacional que, como siempre, intentarán que la paguemos las clases trabajadoras y populares.




## El rincón de Tasio

## ATENCIÓN SANITARIA DE CALIDAD, SIN RECORTES NI PRIVATIZACIONES

En rueda de prensa celebrada el pasado martes a las puertas del Hospital de Cruces, la plataforma ciudadana OPA Herri Plataformak lanzó un duro diagnóstico sobre la situación de la sanidad pública en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) denunciando "un deterioro grave y programado" de Osakidetza.

Según sus portavoces, pese a las reiteradas promesas institucionales y al Pacto Vasco de Salud, aprobado sin consenso, la realidad se traduce en recortes continuados, falta de personal y centros sin médico. La Atención Primaria y la Salud Mental, subrayaron, son los ámbitos más debilitados, con listas de espera "inasumibles" que superan la semana para medicina de familia y más de un año en algunas especialidades.

La plataforma también denunció el empeoramiento de las condiciones laborales en Osakidetza: "Sobrecarga asistencial, alta temporalidad y ausencia de sustituciones. Todo ello repercute directamente en la calidad de la atención", advirtieron.

En su intervención, criticaron, además, un modelo que debilita lo público para favorecer el negocio privado. La sanidad privada se queda con lo rentable, mientras lo público asume lo complejo y costoso. Aseguran que este año más de 500 millones de euros acabarán en el sector privado, y que uno de cada tres ciudadanos ya cuenta con seguro médico privado.

Otro de los puntos más destacados fue la denuncia de falta de transparencia en la gestión, señalando la ocultación de vacunas caducadas. "Es un escándalo sanitario y político grave que exige responsabilidades", afirmaron, reclamando incluso la dimisión del consejero.

OPA Herri Plataformak considera que las OPEs no están resolviendo el déficit estructural de personal ni cubriendo las plazas de difícil acceso. Y denuncia que son claramente insuficientes las plazas creadas de Psicología Clínica. Frente a ello, defienden un giro de 180º: reforzar la Atención Primaria y Salud Mental, la prevención y la salud comunitaria.

"No necesitamos más propaganda ni más titulares. Necesitamos hechos. Necesitamos soluciones a los problemas estructurales de Osakidetza", proclamaron. Entre sus principales exigencias, la plataforma reclama el fin de los recortes, reapertura de los servicios cerrados, frenar la privatización,



reforzar de manera urgente la Atención Primaria, garantizar plantillas suficientes, impulsar una participación ciudadana real y asegurar los derechos lingüísticos, junto a un aumento sustancial de la inversión pública.

Por último, afirmaron que la salud no es un negocio, es un derecho. Y para defenderlo convocaron manifestaciones el próximo 18 de abril en las tres capitales de la Comunidad Autónoma Vasca: Bilbao (12:00, Sagrado Corazón). Vitoria-Gasteiz (12:00, plaza Bilbao). Donostia (17:00, Boulevard).

## MAÑANA CULMINARÁ LA KORRIKA 24 EN BILBAO

El día 19 inició su andadura en Atharratze (Zuberoa). Después de 11 días de marcha sin descanso, de día y de noche, por todo Euskal Herria, mañana día 29 culminará su recorrido en Bilbao. Una KORRIKA 24, bajo el eslogan "Euskara gara" que habrá cubierto un recorrido de 2.175 kilómetros, pasando por las capitales y 480 localidades de las siete provincias, del norte y del sur, de Euskal Herria. Y en ella habrán participado 3.436 personas, desde niños y niñas hasta personas mayores, portando el testigo con un mensaje en su interior, que mañana se hará público al término de la KORRIKA en Bilbao.

Muchas decenas de millares de personas, desde su inicio en Atharratze (Zuberoa), tanto a su paso por localidades pequeñas como por las capitales, han arropado con ánimo e ilusión esta iniciativa popular en defensa e impulso del euskera. Una iniciativa ejemplar que llama la atención de muchas gentes por su enorme dimensión social en un país tan pequeño como el nuestro, en defensa de una lengua propia que trata de sobrevivir y desarrollarse a pesar de las dificultades a que tiene que enfrentarse.




Mañana, sin duda, tendrá un broche final de oro en Bilbao, con el arrope y sostén de muchos miles de personas, que podrán disfrutar también de diversos actos durante toda la jornada, convirtiendo el centro de la capital vizcaína en un lugar de encuentro multitudinario en apoyo y sostén al euskera. Apoyo y compromisos que deben mantenerse y desarrollarse en la vida cotidiana en que estaremos inmersos a partir del día siguiente, ganando así cada día que pase un mayor espacio social de uso y reconocimiento en el conjunto de la ciudadanía vasca.

Al igual que lo ha hecho en las capitales y otras localidades de Euskal Herria, mañana también el movimiento de pensionistas de Bilbao estará en el recibimiento y en la marcha de la KORRIKA. A las 10:45 de la mañana se situará ante el Ayuntamiento por donde está previsto que pase a las 11:10. Poco más de una hora después finalizará toda su andadura.

## III ENCUENTRO TRANSIS LAB

Iruñea acogió el pasado martes, en el Palacio de Congresos Baluarte, el III Encuentro del proyecto europeo TRANSIS LAB, una iniciativa transfronteriza que busca impulsar la innovación social en los cuidados, especialmente en entornos rurales. Es un proyecto financiado por el programa Interreg POCTEFA, liderado por el Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico del Gobierno Vasco, en el que participan socios de la CAV, Iparralde, Francia y Nafarroa.




La jornada reunió a representantes de administraciones públicas, entidades sociales, universidades y empresas del sector de los cuidados, en un espacio orientado a retos como el envejecimiento de la población, el aumento de la dependencia, la soledad no deseada o los problemas de salud mental.

Según informaron, actualmente se trabaja en la elaboración de una Agenda Transfronteriza de Innovación Social en Longevidad en zonas rurales, que servirá como hoja de ruta compartida. El proyecto cuenta con un presupuesto global de 1,9 millones de euros, financiado en un 65% por fondos FEDER.

El Movimiento de Pensionistas de Navarra considera positivas las ideas que están detrás de esos proyectos, pero exige del Gobierno de Navarra un paso adelante, que las buenas

intenciones sean hechos, que se involucre con una política en la que tenga capacidad económica, impulsando con más presupuesto, infraestructura y personal, servicios sociales públicos y dignos, universales, independientemente de su ubicación geográfica con una calidad determinada y a un precio asequible a la renta de cada persona usuaria. Y que debe impulsar los servicios SAD y Centros de Día públicos para buscar la viabilidad de éstos tanto en el ámbito rural como en las ciudades.

## COMIENZA LA RECOGIDA DE FIRMAS EN APOYO A LA ILP EN BALEARES

Una vez realizados los trámites previos, y nombradas y acreditadas las 79 personas que actuarán como fedatarias, el pasado día 17 de marzo comenzó la recogida de firmas de apoyo a la ILP para complementar hasta el equivalente al SMI las pensiones inferiores a esa cantidad, que reciben las personas de más de 60 años en Baleares. En los próximos 4 meses se deberán recoger como mínimo 7.500 firmas, para poder ser tramitada.

Hasta ahora se han desarrollado una serie de charlas, asambleas y conferencias en 26 pueblos de Mallorca, Menorca y Eivissa, y barrios de Palma, tarea que continúa y que es básica para que sea la propia ciudadanía la que impulse el apoyo a la ILP desde sus respectivos territorios. También se están presentando mociones en ayuntamientos y Consells insulares, de momento en una docena. Aunque en la mayoría se han aprobado, en algunos municipios ha contado con la oposición del binomio gobernante PP-Vox, que cada vez tienen más difícil argumentar su rechazo a esta iniciativa.

Los compañeros y compañeras pensionistas de Baleares están contentos/as e ilusionados/as con el desarrollo de esta iniciativa, que la consideran justa y necesaria para acabar con las pensiones mínimas míseras que sufren muchas personas pensionistas, en su gran mayoría mujeres.











2026ko martxoaren 28a

# Albiste eta informazio interesgarriak

## CONFEBASK ETA CEN PATRONALEK UKO EGIN DIOTE ELA ETA LAB-EN BILERA-DEIALDIETARA JOATEARI

ELA eta LAB sindikatuek hilaren 24 eta 25erako deitu zituzten Confebask (EAE) eta CEN (Nafarroa), hurrenez hurren, bi erkidegoetan 1.500€ko gutxieneko soldata lortzeko negoziazioak hasteko bileretara. Halaber, CCOO eta UGT sindikatuak deituak zeuden bilera horietara.

M17ko greba orokor arrakastatsuari jaramonik egin gabe, bi erkidegoetan 1.500€ko gutxieneko soldata eskatzeko babes eta zilegitasun handiagoa eman baitzuen, Hego Euskal Herriko bi patronalek uko egin zioten bilera horietara joateari.




ELA eta LAB sindikatuen ustez, jarrera probokatzaile eta mespretxukoa da langileekiko. Jarrera hori ere EAEko CCOOk kritikatua izan da, beste termino batzuetan baina. Era berean, Gasteizko eta Iruñeko gobernuak kritikatu dituzte sindikatuek, berriro jarrera distantziakideaz, itxurakeriaz, bi aldeak negoziatzera esertzera "gonbidatzean", alde bietako batek -patronala-, eseri eta negoziatzeari uko egiten diolarik.

Bestalde, publikoki jakinarazi denez, Nafarroan CEN patronalak eta UGT eta CCOO sindikatuek elkarrizketak hasi dira, negoziatu beharreko hitzarmenetan gutxieneko soldatak 1.500€koak izan daitezkeen.

Beldur gara borroka luzea izango dela 1.500€ko gutxieneko soldata lortzeko, gutxieneko pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldataraino osatzea lortzeko bezala. Oinarrizko bi aldarrikapen dira, legitimitate sozial handia lortu dutenak, eta oso garrantzitsua da Euskal Herriko egoera ahulenean eta prekarioan dauden sektoreentzat, bai langileen zein pentsiodunen mundukoan. Ekimenak eta mobilizazio berriak pentsatu beharko dira, patronalek eta gobernuek jarrera alda dezaten.

## DENOK ORDAINTZEN DITUGU AEB-K ETA ISRAELEK IRAN ETA LIBANOREN AURKA EGINDAKO ERASO MILITARRAREN ONDORIOAK

Duela hilabete, otsailaren 28an, AEBk eta Israelek Iranen aurkako bonbardaketa basatiak hasi zituzten. Egun batzuk geroago, Israelek, Libano bonbardatu zuen aurreko urrats gisa, Gazan egin zuen bezala, bere lurraldearen zati handi bat okupatzeko. Dagoeneko milaka dira hildakoak, eta milioika lagun desplazatuak, gehienak zibil irandarrak eta libanoarrak, bizirik irauteko oinarrizko laguntzarik gabe, izaera inperialista eta kolonialeko eraso militar horrengatik.

Arrisku handia dago gerra hau luzatu ahal izateaz, baita Ekialde Hurbil osora zabaltzeaz, interpelatzen gaituzten ondorio humanitario eta ekonomiko larriekin, eta mundu osoari eragiten diotenak eta, beraz, gizarte-erantzukizuna dugu gerra hori sortu dutenei aurre egiteko, beren helburuak lortu arte mantentzeko prest jarraitzen baitute.

Gerra honek nazioartean krisi ekonomikoa sortu du, eta beti bezala ondorio larrienak herri eta langile klasekoentzat izaten ari da. Joan den ostiralean, hilak 20, Estatuko Gobernuak, bi Errege Lege Dekretu onartu zituen hain zuzen ere, bata neurri fiskal eta ekonomikoekin gerra honek eragindako ondorioei aurre egiteko eta beste bat berariazko etxebizitza-arazoaz. EHPMk honako hau adierazi zuen astelehenean argitaratutako ohar batean:

"*Lehen Errege Lege Dekretuari dagokionez, neurri batzuek pertsona ahulenen bizi-baldintzak hobetzen dituztela baloratzen dugu, baina uste dugu neurri horiek nahikotasun mailara ez direla heltzen eta, neurri fiskalekin batera doazela, beldur gara, neurri fiskal horiek gaur egun energiaren eta elikagaien prezioekin espekulatzen ari direnen poltsikoak loditzen amaituko dutela. Enpresa handi, finantzario eta energetikoek urte asko daramatzate ordaindu behar dutena baino zerga gutxiago ordaintzen eta urtez urte mozkin errekorrak dituzte.*



*2025ean, banku handiak 34.000 milioi euroko irabaziak izan zituen, eta energia-enpresek 12.405 milioi eurokoak. Bi sektoreen artean 13.300 milioi euro ordaindu behar zituzten Sozietateen gaineko Zergan, baina 2.882 milioi euro baino ez zituzten ordaindu: %6,8 eta %4,6 baino ez zuten ordaindu, hurrenez hurren, Sozietate Zerga gisa, %30 eta %25 ordaindu beharko luketenean, hurrenez hurren. Bi sektore horiek SZn ekarpena egiteari uzten diotenak, ezkutu sozialak suposatzen duen 5.000 milioi euro kopurua bikoizten du.*

Egoeraren araberako neurriez gain, EHPMtik erabaki estrukturalak hartzea eskatzen dugu aberastasuna modu ekitatiboan banatzeko, hasteko LGS eta pentsio minimo nahiko bat ezarriz langileei bizi-baldintza duinak bermatuko dizkietenak. *Aberatsenek indartsuenaren legea ezarri duten nazioarteko testuinguru honetan, aurrekontu publikoetan gastu militarra ezabatzea eta gerrak amaitzea ere eskatzen dugu*".

AEBen eta Israelen eraso militarrari galga jartzea premiazkoa ez ezik, ezinbestekoa ere bada. Horretarako, beharrezkoa da gizarte-ekimen zabalak eta bateratuak bultzatzea, eta exigitzen dugu gure erakundeek eta gobernuek salatu eta eraginkortasunez gerraren aurka egitea. Amaitu egin behar da Iran, Libano Palestina... herrien giza eta bizi-sufrimendu itzelarekin eta nazioartera irekitako krisi ekonomikoarekin, beti bezala klase langileak eta herrikoiak ordain dezan saiatuko dutena.




Tasioren txokoa

## KALITATEZKO OSASUN-ARRETA, MURRIZKETARIK ETA PRIBATIZAZIORIK GABE

Joan den asteartean Gurutzetako Ospitalearen atarian egindako prentsaurrekoan, OPA Herri Plataformak osasunaren egoerari buruzko diagnostiko gogorra egin zuen publiko, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) "Osakidetzaren narriadura larria eta programatua" salatuz.

Bozeramaileen arabera, nahiz eta erakundeek eta Euskal Osasun Itunak (adostasunik gabe onartua) behin eta berriz hitz eman, errealitateak murrizketa jarraituak dakartza, langilerik eta medikurik gabeko zentroetan. Azpimarratu zutenez, Lehen Mailako Arreta eta Osasun Mentala dira ahulen dauden arloak, "onartezinezko" itxaron-zerrendez: familia-medikuntzarako, astea gainditzen dutenak eta espezialitate batzuetan, urtebete baino gehiago.

Plataformak salatu zuen ere Osakidetzako lan-baldintzek okerrera egin dutela: "Asistentzia-gainkarga, behin-behinekotasun handia eta ordezkapenik eza. Horrek guztiak eragin zuzena du arretaren kalitatean", ohartarazi zuten.




Bere hitzaldian gainera kritikatu zuten osasun publikoa ahultzen dutela negozio pribatuaren alde egiteko. Osasun pribatua errentagarrienaz geratzen da, eta publikoa, berriz, konplexu eta garestienaz. Ziurtatu zuten aurten 500 milioi euro baino gehiago sektore pribatuan amaituko direla, eta hiru herritarretik batek jadanik aseguru mediko pribatua daukala.

Kudeaketan beste puntu nabarmenetako bat izan zen gardentasun falta salatu izana, iraungitako txertoak ezkutatzean. "*Osasun eta politika arloko eskandalu larria da eta erantzukizunak eskatzen ditu*", adierazi zuten, baita sailburuaren dimisioa ere eskatuz.

OPA Herri Plataformak uste du LEPak ez direla konpontzen ari langileen egiturazko defizita, ezta betetzeko zailak direnak ere. Eta argi eta garbi salatzen du Psikologia Klinikoko lanpostuak ez direla nahikoak. Horren aurrean, 180º-ko biratzea defendatzen dute: Lehen Arreta eta Osasun Mentala, eta osasun komunitarioaren prebentzioa.

"*Ez dugu propaganda gehiago behar, ezta lerroburu gehiago ere. Egitateak behar ditugu. Irtenbideak behar ditugu Osakidetzaren egiturazko arazoetan*", aldarrikatu zuten. Bere eskakizun nagusien artean, murrizketez bukatzea, itxitako zerbitzuak berriro irekitzea, eta pribatizazioa geldiarazi, Lehen Mailako Arreta premiaz berrindartzea, plantilla nahikoa bermatzea, herritarren benetako parte-hartzea bultzatzea eta hizkuntza-eskubideak ziurtatzea, eta inbertsio publikoaren nabarmen handitzea.

Azkenik, esan zuten osasuna ez dela negozio bat, eskubide bat baizik. Eta hori defendatzeko deitu zuten manifestazioetara apirilaren 18an Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan: Bilbo (12:00etan, Jesusen Bihotza). Vitoria-Gasteiz (12:00etan, Bilbo plaza). Donostia (17:00etan, Boulevard).

## BIHAR AMAITUKO DA 24 KORRIKA BILBON

Hilaren 19an Atharratzen (Zuberoa) hasi zen. Euskal Herri osoan barrena, egunez eta gauez atsedenik gabe, 11 egunez ibili ondoren, bihar hilak 29, Bilbon amaituko du ibilbidea. KORRIKA 24. edizioak, 2.175 kilometroko ibilbidea beteko du "*Euskara gara*" esloganaz, Euskal Herriko ipar eta hegoaldeko zazpi probintzietako hiriburuetatik eta 480 udalerritatik igarota. Eta 3.436 pertsonak parte

hartu dute, haurrek zein adinekoek, lekukoak barruan mezu bat daroalarik. Mezu hori bihar emango da argitara, KORRIKA Bilbon amaitzean.




Milaka pertsonak, Atharratzen (Zuberoa) hasi zirenetik, bai herri txikietan zein hiriburuetan zehar, animoz eta ilusioz babestu dute ekimen hau. euskararen defentsan eta sustapenean. Jende askoren arreta pizten duen ekimen eredugarria da, duen dimentsio sozial handiagatik, gurea bezalako herrialde txiki batean, hizkuntza propioa bizirauten eta garatzen saiatzen dena, zailtasun handiak dituen arren.

Bihar, zalantzarik gabe, amaiera bikaina izango du Bilbon, milaka lagunen babes eta sostenguarekin; egun osoan zehar hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera ere izango dute, Bizkaiko hiriburuko erdigunea euskararen aldeko topagune jendetsua bilakatuz. Babes eta konpromisoak hurrengo egunetan eguneroko bizitzan mantendu eta garatu behar dira, horrela, euskal herritar guztien onarpenaz, egunez egun espazio sozial handiagoa irabazten erabileraz eta aitorpenaz.

Euskal Herriko hiriburuetan eta beste herri batzuetan egin duen bezala, bihar ere Bilboko Pentsiodunen Mugimendua KORRIKAren harreran eta martxan izango da. Goizeko 10:45ean udaletxearen aurrean kokatuko da, 11:10ean igarotzea espero baita. Azkenean, ordubete geroago hortxe amaituko du bere ibilbide osoa KORRIKAk.

## TRANSIS LAB III. TOPAKETA

Joan den asteartean, Iruñeko Baluarte Biltzar Jauregian, TRANSIS LAB proiektuaren III. Topaketa izan zen, mugaz gaindiko ekimen europar bat da, zaintzan berrikuntza soziala bultzatu nahi duena, batez ere landa-inguruneetan. Interreg POCTEFA programak finantzatutako proiektua da, EAEko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailak buru duena, eta bertan, Iparraldeko, Frantziako eta Nafarroako bazkideek ere hartzen dute parte.

Jardunaldian administrazio publikoetako, gizarte erakundeetako, unibertsitateetako eta Zainketen sektoreko enpresak, besteak beste, bildu ziren, zaintzaren erronkak aztertzeko espazio baten: biztanleriaren zahartzea, mendekotasuna areagotzea, nahi ez den bakardadea edota osasun mentaleko arazoak.




Jakinarazi zutenez, gaur egun Mugaz Gaindiko Agenda bat egiten ari dira, bide-orri partekatua izango dena Landa-eremuetako bizitza-luzeraren gizarte-berrikuntzaz. Proiektuak 1,9 milioi euroko aurrekontu orokorra du, FEDER funtsak %65 finantzatuta.

Nafarroako Pentsiodunen Mugimenduak positibotzat jotzen ditu proiektu horien atzean dauden ideiak, baina

aurrerapauso bat eskatzen dio Nafarroako Gobernuari, asmo onak egitateak bihurtzea, gaitasun ekonomikoa duen politika batean inplikatzea, eta, horretarako aurrekontu, azpiegitura eta langile gehiago bultzatzea, gizarte-zerbitzu publiko eta duinak, unibertsalak kokapen geografikoa edozein dela ere, kalitate jakin bateko eta prezio bateko erabiltzaile bakoitzaren errentaren araberakoa izatea. Horrez gain, SAD delako zerbitzuak eta Eguneko zentro publikoak bultzatu behar ditu horien bideragarritasuna bilatzeko, landa-eremuan zein hirietan.

## BALEAR UHARTEETAN HEL BABESTEKO SINADURA-BILKETA HASI DA

Aldez aurreko izapideak egin ondoren, eta fede-emaile gisa jardungo duten 79 pertsona izendatu eta akreditatu ondoren, joan den martxoaren 17an HELren aldeko sinadurak biltzen hasi ziren Balear irletan. LGSren baliokidetzaraino osatzea kopuru horretatik beherako pentsioak, 60 urtetik gorako pertsonenak. Hurrengo 4 hilabeteetan, gutxienez, 7.500 sinadura, izapidetu ahal izateko.

Orain arte hainbat solasaldi, batzar eta hitzaldi egin dira 26 herritan, Mallorca, Menorca eta Eivissa, eta Palmako auzoetan. Zeregin horrek aurrera jarraitzen du, oinarrizkoa baita nork bere lurraldetik HELren babesa bultzatuko duena. Halaber, udaletan eta uharteetako Consellsetan mozioak aurkezten ari dira, oraingoz dozena bat. Gehienetan onartu badira ere, zenbait udalerritan gobernatzen duen PP-Vox binomioaren oposizioan izan dute, nahiz eta binomioak gero eta zailago duen ekimenari arbuioa argudiatzea.




Balear Uharteetako lankide pentsiodunak pozik eta ilusioz gainezka daude ekimen honen garapenaz; bidezkotzat eta beharrezkotzat jotzen dute pentsio minimo kaskarrekin amaitzeko. Egoera hori pentsiodun askok pairatzen dute, eta gehienak emakumeak dira.




